



GURE LAN OSASUNA ERE GARRANTZI HANDIKOA DA

LAN OSASUN ETA SEGURTASUNAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Genero ikuspegia laneko osasunean txertatzeak aukera ematen digu, alde batetik, arriskuek emakumeei eta gizonen zer neurritan (modu desberdinean) eragiten dieten jakiteko, eta bestetik, prebentziozko neurri eraginkorrak hartzeko. Horretarako, eta 2023-2027rako Laneko Segurtasun eta Osasunerako Espainiako Estrategiarekin (EESST) bat etorrita, gure jardura eremuan honako hauek beharrezkoak direla uste dugu:

1.- Arau esparrua eguneratzea: Prebentziozko jardueretan genero ikuspegia txertatuz; prebentzio planean genero ikuspegia txertatu beharra dagoela azalduz; arriskuak identifikatuz eta ebaluatuz; prebentzioa eta prestakuntza planifikatuz; osasuna zainduz; eta prebentziozko jarduerak eta beharrezkotzat jotzen diren neurri guztiak bideratuz.

2.- Ikerkuntzaren garapena, datuak hartzeko prozesuak eta informazioaren analisia sustatzea: emakumeen lan eta osasun baldintzen ondorioak ageriko egitea, ikusten ez dena ez baitago. Behar-beharrezkoa da berriazko adierazleak garatzea eta lan istripuak eta gaixotasun profesionalak ikertzea, emakumeen eta gizonen arteko alde biologikoak eta sozialak kontuan hartuta.

3.- Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak aintzat hartzea: arriskuak ebaluatzerakoan eta prebentziozko neurriak ezartzerakoan. Arriskuen analisisian funtsezkoa da, besteak beste, zaugarritasun bereziko kolektiboetan biltzen diren aldaerak aintzat hartzea eta arriskuen analisisian sartzea, hala nola gaitasun desberdinak dituzten emakume migratzaile langileena, genero indarkeriaren biktimena, eta abarrena.

4.- Genero arloko arrisku espezifikoetan esku hartzea: hainbat faktore hartu behar dira kontuan, hala nola, presentzia bikoitza edo lana/familia gatazka, indarkeria, sexuaren ziozko jazarpena edo bazterkeria, etab. Hala bada, bereziki garrantzitsua da ikertzea eta neurri egokiak proposatzea zaintzekin lotutako lanen segurtasuna eta osasuna babesteko, hala nola mendekotasunarekin, garbitasunarekin, etxeko lanekin, heziketarekin eta osasunarekin lotutakoak.

5.- Genero ikuspegia benetan eta eraginkortasunez txertatzeko beharraz sentsibilizatzea. Behar-beharrezkoa da, alde batetik, lantokietan prestakuntza espezializatua ahalbidetzea genero ikuspegiaren garrantziaz jabetzeko, eta bestetik, esparru horretan berdintasuna eraginkorra izateko neurriak inplementatzea eta horien jarraipena egitea.

6.- Gaixotasun profesionalen koadroa berrikustea: laneko osasunerako kaltegarriak diren elementuak begiratzeari buruzko alderdietan genero ikuspegia txertatzea eta osasun azterketen protokoloak berrikustea, emakumeen eta gizonen osasun arreta ikuspegi oso batetik egin dadin. Azterketa horiek historia klinikoan eta lanekoan oinarritu behar dute, eta estresarekin eta bizi ohiturekin lotutako alderdiak ere ikertu behar dira. Gainera, emakume langileen gaixotasun nagusien ikerketa sustatu behar da, baita horien kausak eta prebentziorako adierazleak ere.

7.- Laneko arriskuak prebenitzeko plana eta berdintasun plana lotu behar dira, kontziliazioarekin, lan denborekin, sexu jazarpen edo sexuaren ziozko jazarpenarekin, sustapenarekin, giro osasungarriekin eta abarrekin lotutako alderdiak koordinatu ahal izateko.

8.- Emakumeek ordezkari sindikal, prebentzio arloko ordezkari eta Segurtasun eta Osasun Batzordeko kide gisa **parte har dezaten bermatzea,** emakumeen zuzeneko inplikazioak haiei eragiten dieten arazoak ikusarazten laguntzen baitu, baita arazo horiek gainditzeko konponbideak aurkitzen ere.

